

GIZAKIEN SALEROSKETA ETA PROSTITUZIOA

IRAKASGAIA: KOMUNIKAZIOA EUSKARAZ ARLO JURIDIKOAN

IRATI PIEDEHIERRO LOPO

AURKIBIDEA: **I. Sarrera.-II. Garapena-** 1. Gizakien salerosketa eta prostituzioa.-2. Esther Hava Garciaren txostena.- 3-Europa eta Nazioarteko txostena.- 4-Gizakien salerosketa eta prostituzioa Espainian. **III. Gizakien salerosketa eta prostituziaren ustiapenaren errepresiorako hitzarmena - IV. Gizakien salerosketaren biktimen ezagutzea** – 1. Ezagutzearen protokoloa.- 2. Gizkien salerosketaren babesarentzako protokoloa. **V. Ondorioak.- VI. Bibliografia.**

I. Sarrera

Gizakien salerosketa eta prostituzioa XXI. mendean ohiko gaiak dira. Horregatik, hainbat kanpaina sortu dira fenomeno honen aurka eta komunikabideetan eragin zuzena izan du. Honekin batera, hainbat iragarpen sortu dira honen aurka.

Zenbait arazok fenomeno honen jarraipena egitea eta biktimak zagutzea zailtzen dute. Hori gainditzeko, hainbat protokolo daude, baina salaketa faltagatik oso zaila da helburuak lortzea.

Izan ere, biktima horiek beraien egoera salatzeko askatasunik ba al dute? Zeintzuk dira pairatzen duten sufrimendua hain markatua egiten dituzten arrazoiak? Zeintzuk dira XXI. mendeko esklabutza amai dadin lortzeko jarraitu beharreko bideak?

II. Garapena

1. Gizakien salerosketa eta prostituzioa

Askotan zaila izaten da gizakien salerosketaren eta prostituzioaren artean dauden desberdintasunak azaltzea. Bi gertakari hauek lotura handia dute baina honek ez du esan nahi gauza bera direnik.

- **Gizakiaren salerosketa:** pertsonen garraioa, lekualdaketa, harrera edo pertsonen hartzea indarra erabiliz edo bortxako beste forma batzuk erabiliz egiten da gizakien salerosketa. Esaterako, bahiketa, iruzurra etab. Honekin, biktima horren onarpena lortu nahi da, bere eskubideak errespetatu gabe eta esplotatzeko xedekin.

- **Prostituzioa:** diruaren edo beste zerbaiten truke sexu harremanak saltzea da. (Common, 2015)

Bi kontzeptuak alderatzeko orduan, argi ikusten da ezberdintasun handia dagoela bien artean nahiz eta askotan, lotuta egon. Gizakien salerosketari buruz hitz egiten dugunean, izan ere, prostituzioarekin lotzen dugu eta prostituzioa burura etortzen zaigu. Honen arrazoa hurrengoa da: zapaltzaileek prostituzioan lan egiten duten emakumeak objektu bezala tratatzen dituzte eta azkenean emakume horiek biktima bihurtzen dira.

2. Esther Hava Garciaren txostena

Txosten hau 2006. urtean onartu zen gizakien salerosketa eta prostituzioaren ezaugarriak azaltzeko eta honen inguruan dagoen ezatabaida azaltzeko. Interneten oinorrian azaltzen den webgunean (*) dago eskuragarri.¹

Gaur egun, gizakien salerosketa areagotzen ari da. Estatistika guztiak erreparatuz, ez daude datu zehatz eta fidagarri asko, baina urtean 700.000 pertsona inguru bihurtzen dira gertakari honen biktima.

700.000 lagun asko dira eta honen zergatia azaltzeko bi faktore ditugu:

- a) Biktima hauen herrialdetan dagoen krisi ekonomikoa eta diru zailtasunak (pobrezia, gatazkak, etab.)
- b) Migrazio legalean arazoak sortzen dira eta estatuak berak hainbat zailtasun jartzen ditu kasu hauetan.

3. Gizakien salerosketa eta prostituziaren ustiapenaren errepresiorako Hitzarmena

1949. urtean, gizakiaren salerosketaren eta prostituzioaren aurkako hitzarmena onartu zen. Hitzarmen honek hurrengoa azpimarratzen zuen: prostituziarekin eta gizakiaren salerosketatekin pertsonen eskubideak ez direla errespetatzen. Interneten oinorrian azaltzen den webgunean (***) dago eskuragarri.²

¹ https://minerva.usc.es/xmlui/bitstream/handle/10347/4059/pg_083-126_penales26.pdf?sequence=1&isAllowed=y

² (***) <http://www.derechoshumanos.net/normativa/normas/onu/trata-de-personas/1949-Convenio-Naciones-Unidas-trata-y-prostitucion.pdf>

Bestalde, Europaren hitzarmena eta Nazioarteko hitzarmena ez zuten guztiarekin bat egiten. Europarrak gai honen desagerpena sustatzeko eta desagerpena lortzeko neurri gehiago hartzen zituelarik.


4. Gizakien salerosketa eta prostituzioa Espainian

Guarda Zibilak 2004an egindako ikerketa batean, mila establezimendu baino gehiago aurkitu zituzten errepideetan eta horietan, milaka eta milaka emakumek prostituta bezala aritu ziren. Gehienak kanpotarrak ziren eta salaketei erreparatuz, %1ek bakarrik salatu zuen egoera hori.

Gizakien salerosketaren biktimen profila hurrengo izan daiteke:

- Emakume gaztea, 20-30 urte artekoa
- Kanpotarra
- Zailtasun ekonomikoak dituen eta familiarekin arazoak
- Ikasketei erreparatuz, ikasketa maila baxukoa

Biktima horien herritartasuna ezagutzea ere garrantzitsua da:



Biktima hauek ez dute egoera salatzen eta arrazoi ugari daude hau azaltzeko. Hasteko, emakume hauek zapaltzaileen neurritz kanpoko kontrolak jasa behar izaten dituzte egunero. Zapaltzaileek, xantaia egiten diete emakume hauei familia mehatxatuz edota beste arrazoi askorekin. Beste alde batetik, emakume hauek gehienetan kanpotarrak direnez, hemengo hizkuntza ez dute ondo menperatzen, beraz, hori ere zailtasun bat da egoera salatzeko orduan. Azkenik, emakume hauek oso beldur dira lan egiterako orduan eta ez dute ezagutzen gure herrialdean dauden erakundeak nola lan egiten duten. Beraz, salatzeko orduan ulertuak izango ez direla uste dute. (Garcia, 2016)

Arrazoi ugari daude salaketak ez egitea ulertzeko baina zoritxarrez, emakumeak ez dira konturatzen salaketa horren garrantzi handiaz mundu ilun horretatik ateratzeko. Erakunde askok lan egiten dute egunero egoera zail honi amaiera jartzeko eta emakume horiek behar duten laguntza eduki dezaten.


III. Nazio Batuen Erakundearen txostena

Txosten hau 2007. urtean onartu zen eta gizakien salerosketari buruz dauden estatistika desberdinak azaltzen ditu hainbat urte alderatuz. Honekin batera, zapalitzzaileei buruzko informazioa ere ematen du. Interneten oinorrian azaltzen den webgunean (***) dago eskuragarri.

Salerosle talde bakoitzak modu propioak dituzte biktimak biltzeko; baina normalean, prozedura jakin bat jarraitzen dute. Salerosle hauek gehien erabiltzen duten modua hurrengoa da: emakume hauek beren herrialdeetan daudenean eta Espainira edota beste herrialde batera joaten direnean, uste dute lan normal bat edukiko dutela (irudiarekin zerikusia duten lanak, beraien hizkuntza irakasteko irakasleak izan etab.). Askotan, emakume horiek badakite prostitutak izango direla eta beste herrialde batzuetan beraien herrialdeetan baino diru gehiago irabaziko dutela baina ez dira jabetzen paraituko dutenaz.

Errepresioak hauek indarkeria erabiltzen dute biktima hauek kontrolatzeko eta neurritz gaineko kontrolak erabiltzen dituzte biktima hauei sufrimendua eragiteko. Askotan, emakume hauek drogatzen dituzte ihes egin ez dezaten. Grafiko honek erakusten du zein diren erabiltzen diren indarkeria moduak biktima hauen kontra. (Unidas, s.f.)

5. IRUDIA 1998-2002. urtean erabilitako bortxaketa era desberdinak herrialde baxuetako emakumeekin



Errepresogileek ere profil zehatz bat izaten dute eta hau aztertzeak ere garrantzi handia du. Gehienetan gizonak izaten dira baina garrantzitsua da azpimarratzea azken urteotan emakume gehiago daudela errepresogile bihurtzen direnak eta honen arrazoia hurrengo da: askotan, biktima eta errepresogileen artean erlazio desberdin bat sortzen dela eta konfiantzazko erlazioa sortzen dela; beraz, emakume hauek errepresogile bihurtzen dira prostituzioa eta esplotazioa alde batera utzita.

IV. Gizakien salerosketaren biktimen ezagutzea

Azken urte hauetan, hobekuntza asko jaso dira gizakien salerosketaren biktimak identifikatzeko orduan. Aurretik aipatu bezala, emakume gehienek ez dute egoera hau salatzen eta %6 salaketa besterik ez dira jasotzen urtean. (Comisión Europea, 2013)

Aurrekoa kontuan hartuta, garrantzitsuena emakume hauen eskubideak errespetatzea da eta hori lortzeko, hainbat protokolo eta prozedura daude biktima hauen ezagutza lortzeko.

1. Identifikazio protokoloa

2012. urtean, herriaren defendatzaileak gizakien salerosketaren txostena egin zuen. Txosten honetan, identifikazio protokoloa azaltzen du 140. orrialdean informazio esanguratsua emanez.: Interneten oinorrian azaltzen den webgunean (****) dago eskuragarri³⁴.

³ (***) https://www.unodc.org/documents/publications/TiP_Europe_ES_LORES.pdf

⁴ (****) <https://www.defensordelpueblo.es/wp-content/uploads/2015/05/2012-09-Trata-de-seres-humanos-en-Espa%C3%B1a-y%C3%ADctimas-invisibles-ESP.pdf>

Lehenik eta behin, kontuan hartu beharko da irizpide ugari daudela biktimen ezagutza zailtzen dutenak, horien artean hurrengoak daude:

- Biktima horiek situazio hori onartu dutela baieztatzea hori horrela ez denean.
- Erakunde bakoitzak duen informazio eskasa honi buruz. Hau da, biktima batek identifikatzeko orduan informazio egokia edukitzea ezinbestekoa da eta ez edukitzeak arazo larriak ekarriko ditu.
- ...

Espainiako arautegiak, Europako Kontseiluaren artikulua kontuan hartzen ditu biktima hauen identifikazioa lortzeko, hau da, kontseilu horretan oinarritzen da. Kontseilu horrek dio, identifikazio hori lortzen lan egiten duten pertsonak, prestakuntza eta ezaguera berezia eduki beharko dutela. Beste alde batetik, Kontseiluak dio zailtasun desberdinak daudela biktima bat identifikatzeko orduan, askotan inmigrate horiek legez kontrako egoeran daudelako dokumentu formalak gabe etab. Beraz, beraiekin harremanak izatea oso zaila da. Hori kontuan hartuz, biktima hori Espainia iristerakoan, galduta eta beldur handia sentituko du bakarrik dagoelako.

Poliziekin edota erakunde batekin harremaneta jartzerakoan, eskubide hauek dituzte biktima hauek:

- Kalterik ez sufritzea
- Interprete bat edukitzeko eskubidea
- Entzunda sentitzeko eskubidea eta bere egoera ikertzeko eskubidea
- Trauma berriak ez sufritzea
- Beren informazioa era formal batean erabiltzeko eskubidea
- Egiten zaizkien galderak errepikatuak ez izatea (PUEBLO, 2012)

2. Gizkien salerosketaren babeserako protokoloa

Poliziek ikerketa bat egin ondoren gizakien salerosketaren babesera protokoloa egin zuten biktimen babesa lortzeko. Interneten oinorrian azaltzen den webgunean (*****) dago eskuragarri⁵.

⁵ (*****) https://www.policia.es/trata/pdf/protocolo_marco_trata.pdf

Protokolo honek bigarren mailako biktimizazioa ekiditea, biktimak justiziarekin parte hatzera gonbidatzea, egoera salatzea eta beraien eskubideak errespetatzen lortzea du helburu.

Gizakien salerosketaren biktima bat ezagutzen lortzeko, lehenik eta behin ikerketa bat egin beharko da. Ikerketa identifikatzeko modu bat da baina ez da bakarra. Horien artean beste batzuk ere badaude:

- Biktima ezagutzen denean eta gure herrialdean sartzen denean
- Medikura joaten denean edozein arrazoigatik
- Salaketa jartzen delako

Beraz, garrantzitsua da argi uztea edozein pertsonak horrelako egoera bat ezagutzuz gero edota zerbait susmatuz gero, polizia-etxe batekin harremanetan jartzea izango dela egokiena.

Biktima bat polizia batek antzematen badu, Fiskalarekin harremanetan jarriko da. Beste alde batetik, medikuen kasuan ere Fiskalarekin harremanetan jarriko dira egoera zein den azaltzeko. Beste edozein zerbitzuren kasuan, hau da, beste edozein zerbitzuz egoera honen berri badu, polizia-etxe batekin harremanetan jarriko da edota Fiskalarekin. Azkenik, biktima bat herrialde bateko mugan edota kanpotar etxe batean aurkituz gero, Fiskalarekin harremanetan jarri beharko da eta horrela, neurri desberdinak hartu beharko dira.

Biktima baten aurrean gauden momentutik, beharrezko neurriak hartu beharko dira biktima hauen eskubideak babesteko, laguntza medikoa emateko eta laguntza juridiko eta soziala emateko. (Policía, s.f.)

Elkarrizketa bat egingo zaio biktimari eta elkarrizketa hori, ondo trebatutako polizia egingo dute. Elkarrizketa hau ezingo da edozein tokitan egin. Hau da, ingurugune seguru batean egingo da eta biktima horren hizkuntza errespetatuko da. Elkarrizketa amaitzerakoan, ezinbestekoa izango da biktima horrek ezagutzea zein diren bere eskubideak, (laguntzaile bat edoizen tokitara joateko, laguntza juridikoa etab.). Mugikor bat edukitzeko eskubidea izango du hainbat profesionalekin harremana ez galtzeko eta gaizki sentitzen diren edozein momentutan norbaitekin hitz egiteko. Beraz, babestuta egongo dira; bai emakume hauek, bai haien seme-alabak.

V. Ondorioak

Gizakien salerosketa delitu bat da eta zoritxarrez oso zaila da delitu hau desagerraraztea. Hau azaltzeko arrazoi desberdinak daude. Horien artean, herritarrek honi buruz duten ezagutza eskasa eta horrez gain, hau antzemateko eta ekiditeko zailtasuna.

Horregatik, hainbat erakundek protokolo ugari burutu dituzte biktimei segurtasun neurriak ziurtatzeko eta biktima bakoitzak dituzten eskubideak ezagutzera emateko.

Gerta daitekeena da, delitu horretaz hitz egiteari ez da utziko; beraz, beharrezkoa da herritar guztiek jabetzea zein den gaur egungo situazioa eta gure inguruan gertatzen ari den honetaz.

Honi guztiari aurre egiteko garrantzitsua da aipatzea helburua biktima hauek erakunde desberdinekin harreman estuak lortzea dela. Honekin, salaketak jartzea ez da zaila izango eta hau ekiditea erraza izango da.

Okerrena eta tristeena da, emakume askok mundu ilun honetan sartzen direla eta askotan emakume horiek errepresio gile bihurtzen direla beste zapaltzaileekin duten harremanagatik. Beraz, egoera hau desagerraraztea oso zaila da hori guztia kontuan hartuta eta zaila izango da ekiditea. Azkenik, André Malrauxek esaten zuen bezala, “gehiago balio du zerbait egiteak eta damutzeak eta ez egin ez izateagatik damutu beharrak”. Beraz, garrantzi gehiago du egoera salatzeak eta beldurra baztertzeak, egoera ez salatu baino eta sufritzen jarraitzeak baino. (Malraux, s.f.)

VI. Bibliografia

Common, C. (2015). *Wikipedia*.

<https://eu.wikipedia.org/wiki/Prostituzio>

García, E. H. (2016). *TRATA DE PERSONAS, PROSTITUCIÓN Y POLÍTICAS MIGRATORIAS*.

https://dspace.usc.es/bitstream/10347/4059/1/pg_083-126_penales26.pdf

Unidas, N. (s.f.). *Trata de Personas hacia Europa con fines de explotación sexual*.

https://www.unodc.org/documents/publications/TiP_Europe_ES_LORES.pdf

Comisión Europea, G. d. (2013). *IDENTIFICACIÓN DE LAS VÍCTIMAS DE TRATA DE SERES HUMANOS*.

http://extranjeros.empleo.gob.es/es/redeuropeamigracion/Estudios_monograficos/REM_Identificacion_de_victimas_de_trata_ES.pdf

Malraux, A. (s.f.). *Frases Celebres*. <http://www.proverbia.net/>

PUEBLO, D. D. (2012). *Trata de seres humanos en España: Víctimas Invisibles*.

<https://www.defensordelpueblo.es/wp-content/uploads/2015/05/2012-09-Trata-de-seres-humanos-en-España-víctimas-invisibles-ESP.pdf>

Policía. (s.f.). *PROTOCOLO MARCO DE PROTECCIÓN DE LAS VÍCTIMAS DE TRATA DE SERES HUMANOS*.

http://www.policia.es/trata/pdf/protocolo_marco_trata.pdf